

Osoko bilkura

Bilbon, Udaletxean

2015eko abenduaren 18an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Aleman, Sagrario, diruzaina,
Arejita, Adolfo, Iker sailburua,
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailbu-
rua,

Goenaga, Patxi,
Iñigo, Andres,
Kaltzakorta, Jabier,
Lakarra, Joseba,
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Toledo, Ana,
Uribarren, Patxi eta
Zabaleta, Patxi.

Mujika, Alfontso,
Osa, Erramun eta
Zabaleta, Joseba
zegozkien gaietan.

Ezin etorria adierazi dutenak: Mi-
ren Azkarate, Jose Irazu «B. Atxaga»,
Andoni Sagarna, Patxi Salaberri, Joan
Mari Torrealdai, Xarles Videgain eta
Mikel Zalbide.

Ahalak: Jose Irazu «B. Atxaga»k
ahala Andres Urrutiari; Andoni Sagar-
nak ahala Andres Urrutiari; Patxi Sala-
berrik ahala Andres Urrutiari; Joan
Mari Torrealdaik ahala Andres Urru-
tiari; Xarles Videgainek ahala
Jean-Baptiste *Battittu* Coyosi; Mikel
Zalbidek ahala Andres Urrutiari.

Osoko bilkura Bilbon, Udaletxean
hasi da, goizeko 10:00etan, ezkerreko
zutabearen ageri diren euskaltzainak ber-
tan direla.

Euskaltzainburuak euskaltzain guz-
tiak agurtu eta etorririkoen zerrenda
eta berorien ahalak irakurri ditu, eta
quoruma badela egiaztatu ondoren,
Euskaltzaindiaren abenduko Osoko ba-
tzarrari hasiera eman zaio.

E. Osa idazkariordeak Osoko bilku-
ra 12:00etan amaituko dela gogorarazi
du, Izan ere, ordu horretan Fryske
Akademy-ren eta Euskaltzaindiaren
artean lankidetzeta-hitzarmena izenpe-
tuko da.

1. Osoko bilkurako (2015-11-27) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz

Bi ohar egin dira. Batetik, Jean-Baptiste «Battittu» Coyosek ezin etorria adierazi zutenen artean bere izena falta dela adierazi du. Bestetik, A. Toledok 4. puntuari ageri den Jose Loidi Bizkorondoren izena gaizki dagoela eta Jose Antonio Loidi Bizkarrondo behar duela adierazi du.

Bi zuzenketa horiek eginda, bilera-agiria ontzat eman da.

2. Exonomastika: *Bizantziar inperioko pertsona-izenak*

A. Mujika Exonomastika batzordearen idazkaria bilera-aretora sartu eta, euskaltzainak agurtu ondoren, Exonomastika batzordeak prestaturiko txostena aurkeztu du. Idatzian, enperadore eta Bizantziar garaiko beste pertsona nabarmen batzuk jasotzen dira.

A. Iñigok galdetu du, zer irizpideren arabera proposatu den kasu batzuetan *-(t)ar* (Eslaviarra, Damaskoarra...) atzizkia aplikatzea eta beste batzuetan *-koa* (Ate-naskoa, Bizantziokoa...). Erantzuna A. Mujikak eman dio, hots, antzeko kasu batzuetan egin den bezala, kakofonia (Damaskokoa) saihestea kontuan izan dela. A. Urrutiak galdetu du ea zergatik aipatzen diren soilki pertsonaia horiek eta ez jurisprudentzia, medikuntza, arkitektura, literatura, erretorika eta beste alor batzuetakoak ere (adibidez, Justiniano, Tribuniano eta abar), horietarikoak ere kontuan hartzea komeniko litzateke eta. X. Kintanak esan du oharra ipini beharko litzatekeela, zerrenda bera ez dela exhaustiboa adieraziz. Tx. Peillenek esan du ortodoxiako izenak, Elizaren aitak ere sartzeko.

Aurkezpena eta hasierako iruzkinak adierazi ondoren, ekarpenak egiteko aldia ireki da, urtarilaren 22an, ostiralean, amaitzen dena.

3. Euskal Herria izena. 139. araua osatzea, egokitzea eta itzulpenak aurkeztea.

A. Iñigok azaldu duenez, Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko askotariko eragileek (batez ere, baina ez lurralde horietakoek bakar-bakarrik) Euskal Herriaren izena dela eta, Euskaltzaindiak emaniko 139. araua gaztelaniaz eta frantsesez eskatu izan dute. Eskari horiei erantzun nahian, hor zehar zenbait bertsio barreiatu da, Euskaltzaindiak onetsi ez dituenak. Horiek horrela, Sustapen batzordeak, 2015. urteko plangintzan, 139. arauaren gaztelaniazko eta frantsesezko testuak bateratzeko eta Osoko bilkurara ekartzeko aurreikuspena egin zuen.

Argibide horiek emanda, Euskal Herriari buruzko arauaren onarpenaren historia ere egin du, alegia, hasierako testuetatik araua onartu zen arte egindako ibilbidea.

Gaztelaniazko eta frantseseko itzulpenei ekin baino lehen komenigarritzat jo du arauaren sarrera-testu luzean zenbait zuzenketa txiki (zenbait aipamen, oin-ohar eta abar) egitea. Horietako batzuk bertan proposatu ondoren, Osoko bilkurak onartu ditu.

A. Arejitak arauaren azalpenean datorren aipu bat oker transkribatu dela irizten dio. Era berean, garai bateko testuak, zabalkunde egokia izan dezaten, gaurko grafiara ekarri beharko lirakekeela ere iradoki du. Azken puntu honi buruz ez da egon adostasunik. J. Lakarrak, bestalde, Lazarraga arabarraren aipua Leizarragaren aurretik jartzeko heldulekurik ez dagoela esan du. Izan ere, 1564. urtean oso gaztea izan behar zuen Lazarragak. Horiek horrela, erabat egiaztatzeko modurik ez badago ere, nahiko zantzu daude pentsatzeko Lazarragaren poema-liburua ez dela 1564 urtekoa, geroagokoa baizik. Ondorioz, Leizarragaren aipamenaren ostean, Lazarragaren aipamena eta heriotza gertatu zen urtea jasotzea proposatu du. Proposamen hau ere ondo ikusi da Osoko bilkuran.

P. Goenagak esan du ez daukala garbi zer egin behar den. Edozein gisaz, *herria* hitzak esanahi desberdinak izan dituela eta badituela ere esan du. Inguruabar horretan, *herria* tokia ala *jendea* ote den azaldu beharko litzatekeela esan du. Tx. Peillenek esan du *herria/populu* arteko bereizketa dagoela erdarazko *pais/pueblo* gisa, eta *jendea* jatorragoa dela bigarren adierarako.

Joseba Lakarrak batez ere euskarazko erabilerari egin behar zaiola kasu azpimarratu du. A. Urrutiak dio, aldatzekotan, azalpena alda daitekeela, baina ez azken orrialdeko arau erabakia. A. Inñigoren ustez lehenik euskarazko sarrera-testuari egin behar zaizkio zuzenketa-argiketak, eta ondoren, itzulpenak egin. Patxi Uribarrenek, arautu gabeko hitzak baztertzeko dio, normalizatzeko bidean.

Azkenean, Euskaltzaindiaren 139. arauaren euskarazko sarrera-testu luzeari, eta ez azkeneko orriko arau-testuari, ohar zehatzak egiteko epea irekitzea onartu da. Epea urtarilaren 22an, ostiralarekin, amaituko da. Horrexetarako, A. Inñigok egingdako zuzenketak eredutzat hartuz, egin beharko dira proposatu nahi diren zuzenketak, aldaketak nahiz gehiketak, argi adieraziz zer datu edo testutxo zehatz proposatzen den eta zer tokitan itsatsi behar den proposatzen den hori.

Ondoren, aztergaien hurrenkera aldatu eta 6. eta 7. puntuak jorratu dira.

6. Esku artekoak

6.1. Euskaltzaindiaren B titulua. Eusko Jaurlaritzaren Euskara Tituluen Balio-kidetzarako batzordeak Euskaltzaindiaren B titulua Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren C2aren parekoa (4. hizkuntza eskakizunaren maila berekoa) izatea

onartu du. Ondorioz, 297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena egokitu egingo du. Euskara Tituluen Baliokidetzarako batzordeak, bere garaian, A. Iñigok eginiko txostena, eta, ostean, A. Iñigok eta E. Osak prestatutakoa aintzat hartu ditu.

6.2. Eugenio Arotzenaren antzerki-bilduma dohaintzan eman dio Oiartzungo Udalak Euskaltzaindiari, 2015eko abenduaren 16an. Arotzenaren bildumak euskarazko antzerkiari eta antzerki unibertsalari buruzko 2.800 erregistro baino gehiago ditu eta liburu, aldizkari, artikulua, kartel edota argazkiak biltzen ditu. Dohaintzaren bidez, antzerki-artxibo horri erabilera publikoa eman nahi dio Oiartzungo Udalak, herritarren eta ikertzaileen esku jarritz, euskal antzerkigintzaren hedapenean eragiteko. Horrela, datozen bi urteetan, Euskaltzaindiak Arotzenaren bilduma katalogatu du eta, batez ere, komunitate zientifikoaren esku jarriko du materiala.

6.3. Gaur banatuko den liburua. Euskaltzainei gaur B. Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiae* liburua eskuratuko zaie, beste sei hizkuntzatarata itzulita (poloniera, hebreera, finlandiera, nederlandera, georgiera eta errusierara). Edizio berri honen arduraduna X. Kintana Euskaltzaindiko idazkaria izan da.

6.4. Hurrengo bilkurak

6.4.1. Urtarrileko Osoko eta Ageriko bilkurak. Urtarrilaren 29an, ostiralean, Osoko bilkura egingo da Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundian, goizeko 10:00etatik aurrera. Egun horretan, 2015. urtean hil diren euskaltzainak gogora ekartzeko asmoz, hilberri txostenak Ageriko bilkuran irakurriko dira.

6.4.2. Patxi Saez Beloki soziolinguista eta Azpeitiko Euskara Patronatuaren zuzendariaren proposamena. Urriaren argitaratu zuten «Elefantea ikusi» izenburuko artikulua. Bertan, azken 50 urteotan indarrean dagoen euskararen paradigma aldatu beharra dagoela aldarrikatu eta aldaketa horren gidaritza hartu dezala eskatu dio Euskaltzaindiari. Ondoren, Euskaltzaindiaren Zuzendaritzari bidali zizkion artikulua bera eta gutun bat ere. Zuzendaritzak gaia bideratzeko ardura Sustapen batzordeari eman zion eta batzordeak mintegia antolatzeke aukera aurreikusi zuen. Hurrengo pausoa eman zuten Saezek Euskararen Nazioarteko Egunaren haritik, Euskal Herriko hainbat egunkari, astekari eta agerkari digitaletan «Euskaltzaindiari proposamena eta eskutitz irekia» argitaratu zuten eta.

Horiek horrela, 2016ko otsailaren 12an, euskararen egoera aztertu eta aurrera begirako erronkak eta zereginak zehazteko, mintegia egingo du Sustapen batzordeak.

deak. Era horretan, Patxi Saez Azpeitiko Euskara Patronatuaren zuzendariak egingako eskaria bideratu nahi du Akademiak. Euskaltzaindiak mintegi horretan parte hartzeko deia egin die elkarte, erakunde eta pertsona guztiei, ez bakarrik entzule bezala, baita hizlari bezala ere. Hori dela eta, ekarpenak egiteko aldia zabaldu du Euskaltzaindiak: urtarilaren 18ra arteko epea egongo da, nahi duen orok hitzaldi, komunikazio edota iradokizunak egin ditzan. Horren ostean, Euskaltzaindiaren Sustapen batzordeak mintegiaren egitaraua prestatu eta ezagutaraziko du.

7. Azken ordukoak

A. Urrutiak jakitera eman duenez, Pako Garmendia (Azpeitia, 1946) soziologoa eta politikari ohia hil da. Gaur egun Zumaian bizi zen. Deustuko Unibertsitateko Soziologia Fakultateko irakaslea zen. 18 urte zituenetik euskalgintzan lanean hasi zen, eta Garaikoetxea Eusko Jaurlaritzako lehendakariaren aholkularia izan zen. Senideei doluminak adieraztea erabaki da Osoko bilkuran.

Puntu hau aztertu ostean, 4. eta 5. puntuak jorratu dira Osoko bilkuran.

4. Euskaltzaindiaren eta Fryske Akademyren arteko lankidetzaren aurkezpena

Euskaltzainburuak adierazi duenez, bi helburu nagusi ditu hitzarmenak. Batetik, euskara eta frasiera hedatu eta indartzeko jarduerak antolatzea (argitalpenak, mintegiak eta ikastaroak antolatzea, abian dituzten ikerketa-lerroen berri izatea, metodologiak partekatzea eta abar). Bestetik, Europako hizkuntza aniztasunaren inguruko ezagutza eta errespetua sustatzea helburu, Europa mailako hizkuntza gutxituen akademiaren arteko sarea sortzea. Era berean, Europar Batasuneko erakundeei, sare horretako partaideen ordezkariak onar dezaten eskatu nahi zaie. Testuinguru horretan, gaur sinatu nahi den hitzarmena zabaldu nahi dute bi erakundeok, horretarako, Europako gainerako eremu urriko hizkuntzen akademiarekin bat egin dezaten bultzatuz.

5. Fryske Akademyren aurkezpena

A. Urrutia euskaltzainburuak Hanno Brand Fryske Akademy-ren zuzendariari, Cor van der Meer *Mercator* Ikergunearen buruari eta Fryske Akademyren zuzendariartzako kideari ongietorri eman die, bai eta Nick Gardner Euskararen Historia Sozialeko teknikariari ere, azken honek bideratu baititu Euskaltzaindiaren eta Fryske Akademy-ren arteko harremanak.

Ondoren, Fryske Akademy-ren burua den Hanno Brandek bere hizkuntza-erki-degoari eta erakundeari buruzko azalpenak eman ditu. Erdi Aroan frasieradunek

Belgikatik Alemaniaraino zihoan kostalde-zona zabala okupatzen zuten. Nederlandaradunak bertara zabaldu ahala, frasieradunen lurraldea nabarmen murriztu zen. Ordura arte Frisiak ez zuen izan berariazko egitura politiko bateraturik. Gero, garai modernoan, Holandan integratu zen, baina autonomia nabarmenaz. Aldi berean, nederlandera frisia ordezkatzen joan zen. Erromantizismo garaiarekin batera Frisiaren aldeko kultura-mugimenduaren barnean hizkuntzarekiko interesa ere piztu zen. 1938an sortu zen Akademia, ondorioz, herri-ekimenari esker, Holandako Zientzien Errege Akademiarekin loturik, bertako kultura zein hizkuntza bizirik iraunarazteko asmoz. Funtzio horiek betetzeko, Ljouwert/Leeuwarden hirian du Akademiak bere egoitza.

Eginkizun zientifikoaren artean honako hauek zerrendatu ditu H. Brandek: hizkuntzari begirakoak (gramatika aztertzea, arauak finkatzea eta aldaerak jasotzea); lexikografia; historia; eleaniztasuna eta gutxiengoaren hizkuntzak eta abar. Horrez gain, Akademiak CTI (telefonía/informatika integrazioari begirako) ekimenetan parte hartzen du, bere lanak oro har bertako gobernamenturako izan dezakeen balioa ahaztu gabe.

Eleaniztasunaren eta hizkuntza eskuratzearen ikergune europarra den *Mercator* Akademiaren baitan funtzionatzen du. Nazioarteko sare horrek –eskualdeko, estatuko eta Europako diru-laguntzak jasorik–, helburuen artean, eskolen arteko lan-sarea sortzea du, Europan zehar hizkuntza gutxituen ikasbideei buruzko informazioa partekatze asmoz.

Azkenik, H. Brandek euskaldunen eta frasieradunen arteko elkarlana azpimarratu du: hezkuntzari eta gutxiengoei buruz egindako ikerlanak, Europako kultura-hiriburuen arteko lankidetzak-aukerak (Donostia 2016 – Leeuwarden 2018) eta, Euskaltzaindiarekiko hitzarmen berriari esker, bi akademiaren artean hizkuntzak, historia eta literatura integratuko dituen berariazko programa garatzeko aukera.

A. Urrutiak H. Brand-i eskerrak eman dizkio. Ondoren, bi erakundeetako buruek lankidetzak-hitzarmena izenpetu eta talde-argazkia egin dute.

Eta beste aztergairik ez dela, 12:30ean Osoko bilkura bukatutzat eman da.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urriaga,
idazkaria